

## GIL 134 Mundakako koralak eta orbitolinak



Lumakelaren azaleratzea Mundakako kostako pasealekuaren azpian.

### Kokapena

#### Elizaren ondoko azaleratzea

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43°24' 27,6" N

Luzera 2°41' 43,82" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 524.655,30

Y: 4.806.218,70



### Nola iritsi

Mundakako parrokia-elizaren atzeko aldetik, bidexka bati jarraituz eta eskailera batzuk jaitsi ondoren, A azaleratzera iritsiko gara. B azaleratzearen senadietara iristeko, Mundakako portutik irten eta kosta-lerroari jarraitzen dion bidexka bat hartu behar da.



Molusku-oskolen zatiak, errudistenak, ostreidoenak, koralenak,...



Koral adardun meheak.



Ostreidoak.

## GILaren deskribapen laburra

GIL honen azaleratzea osatzen duten arrokek konplexu urgondarra delakoaren parte dira (Goi Aptiarra-Erdi Albiarra). Konplexu hori zabal azaleratzen da Bizkaiko sinklinorioaren bi alpeetan, eta tuparriz, bretxa karbonatatzuz eta arrezife-kareharri errudistadunetz osatua dago. Mundakako eskualdean, hauek dira material urgondar nagusiak: tuparri beltz orbitolinadunak, eta kareharri mikritikoak, koral masiboz hornituak, eta, proportzio txikiagoan, porifero, ostreido, molusku eta foraminifero batzuk ere badituztenak. Tartekatuta, badira kalkarenita bioklastiko batzuk ere, alboetan jarraitutasunik ez dutenak, bai eta hareharri siliziklastikozko banku bakarturen bat ere.

Mundaka inguruan, formazioaren goialdea tuparritsuagoa da, baina badauzka kareharri-banku bioeraiki batzuk, dozenaka metro luzekoak eta 4 bat metro lodikoak. Ikuspegi paleontologikotik, banku horiek dira GILaren elementu interesgarrienak; analisi paleoekologikoari esker, biohermo-eredu bat sortu ahal izan da. Eredu horrek, ertzetatik nukleora eta behetik gora, zenbait elkarte ditu, buztinaren kutsadurarekiko tolerantzi-maila desberdina dutenez ondo bereizten direnak eta ekosisteman izandako fauna-eboluzioa agerian uzten dutenak.

## Behatzeko punturik onena

*In situ.*

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 98, GIL 66, GIL 97, GIL 92, GIL 14, GIL 100.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 128, GIL 129, GIL 130, GIL 131, GIL 132, GIL 133, GIL 134, GIL 135, GIL 136, GIL 137.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				●
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>					

## Bibliografia espezifikoa

- I.G.M.E. (1875). *Mapa geológico de España. Escala 1:50.000, 2ª serie, 38*, Bermeo. Madril, Arg. zerb. Industria Ministerioa, 26 or., mapa tolestua.
- García-Mondéjar, J. & Robador, A. (1986-87). "*Sedimentación y paleogeografía del Complejo Urganiano (Aptiense-Albiense) en el área de Bermeo (región Vasco-Cantábrica septentrional)*". Acta Geológica Hispánica, 21-22 lib. (1986-87), 411-418 or.
- Pascal, A. (1984). *Les systèmes biosédimentaires urgoniens (Aptien-Albien) sur le marge nord-ibérique*. Thèse Université de Dijon: 561 or.
- Rat, P. (1959). *Les Pays Crétacés basco-cantabriques (Espagne)*. Thèse Fac. Sci. Publ. Univ. Dijon, XVIII; 525 or.
- Robador A. (1984). *Estudio geológico del sector de Bermeo (entre Bakio y Gernika)*. Lizentzia-tesia. Zientzia Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea; 163 or.